



**AGINDUA, 2023KO ABENDUAREN 28KOA, EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILBURUARENA, EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILAREN 2024, 2025, ETA 2026. URTEETARAKO DIRU-LAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOA ONARTZEN DUENA.**

Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 8.1 artikulua ezartzen duenez, nahitaez eduki behar da diru-laguntzen plan estrategiko bat, eta bertan identifikatu behar dira, sailen diru-laguntzei dagokienez, diru-laguntzen aplikazioaren bidez lortu nahi diren helburu eta ondorioak, diru-laguntza horiek emateko beharrezko epea, aurreikusten diren kostuak, eta haien finantzaketa-iturria, eta beti aurrekontu-egonkortasuneko helburuak bete beharko dira.

Halaber, Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 11.4 artikulua xedatzen du diru-laguntzen plan estrategikoei hiru urterako aurreikuspenak jaso ahal izango dituztela.

Arau hori betez, plan hau sailaren sustapen-politiken plangintzarako tresna da, 2020- 2024 rako Euskadiko gobernu-programaren konpromisoen barruan ardazturik.

Plan hau egiteko, 2020-2024 aldirako gobernu-programan eta indarrean dauden diru-laguntzen programetan definitutako interes publikoak aztertu dira eta plan honen indarraldian horretarako eskuragarri dauden baliabideekin erkatu dira.

Era berean, kontuan hartu dira Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren XII. legegintzaldirako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Planean ezarritako jarduera-lehentasunak. Beraz, diru-laguntza programa horiek berdintasun- printzipioa txertatu behar dute araudian, gobernu onaren lehentasun gisa. Era horretan, eraginkortasun-maila eta efizientzia-maila areagotzea bermatzen da, eta baita gure jardun-eremuan gardentasuna indartzea ere.

Ohartarazi behar da, dena den, planak programa-izaera duela legealdi honetarako 2020- 2024 aldiko (XII. legegintzaldia) "Euskadi Martxan" gobernu-programaren jardunen esparru orokorraren barruan eta EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Planean. Hori horrela, haren edukiak ez du ez eskubiderik ez betebeharririk sortzen, eta haren eraginkortasuna diru-laguntza lineak praktikan jartzeak baldintzatuko du, egungo aurrekontu-bitartekoak kontuan izanda, besteak beste.



Horrenbestez, sailaren gainerako jardunen antzera, Sailaren Diru-laguntzen Plan Estrategikoak honako hauek ditu erronka eta ardatz estrategiko nagusi:

- Enplegua eta susperraldi ekonomikoa
  - Industria eta nazioartekotzea
  - Ikerketa eta berrikuntza
  - Elikadura eta landa - eta kostalde - garapena
- Bidezko trantsizio energetiko eta klimatikoa
  - Energia-estrategia berria
  - Klimaren eta ekonomia zirkularraren aldeko ekintza
  - Ingurune naturalaren eta biodibertsitatearen kontserbazioa

Planaren indarraldiko urte bakoitzeko lehen hiruhilekoan Planaren betetze-maila ebaluatuko da, diru-laguntza programen ebaluazioari buruz Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen 49.8. artikulua dioena betez.

Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen sailburuak proposamen hau egiteko eskumena du, honako xedapen hauetan oinarrituta: Jaurlaritzari buruzko Legearen (ekainaren 30eko 7/1981 Legea) 26. artikulua; eta 18/2020 Dekretua, irailaren 6koa, lehendakariarena, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio-sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituena. Aurrekoa ikusirik eta eskumen horiek baliatuta, honako hau:

### **XEDATZEN DUT:**

**Lehena.-** Eranskin gisa ageri den «Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren 2024., 2025. eta 2026. urteetarako diru-laguntzen plan estrategikoa» onartzea.

**Bigarrena.-** Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren 2024., 2025. eta 2026. urteetarako diru-laguntzen plan estrategikoa Sail horren webgune ofizialean argitaratuko da.

Hirugarrena.- Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailak ematen dituen diru-laguntzak plan horretan ezarritakoari egokitu beharko zaizkio, eta egungo aurrekontu-bitartekoek baldintzatuko dute betiere.

Aldian-aldian, plan hori berrikusi ahal izango da, Ekonomiaren Garapen, Iraunkortasun eta Ingurumen Saileko titularraren agindu baten bidez. Agindu horren arabera, plan horren aurreikuspenak egokitu ahal izango dira diru-laguntzen deialdia egiteko unean dauden egoera material eta aurrekontuetara, bai eta neurri edo jarduera berriak sartu ere.

**Laugarrena.-** Planaren indarraldiko urte bakoitzeko lehen hiruhilekoan, Planaren betetze-maila ebaluatuko da, diru-laguntza programen ebaluazioari buruz Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen 49.8. artikulua dioena betez.

Vitoria-GasteizEN.

MARÍA ARANZAZU TAPIA OTAEGUI  
EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN  
SAILBURUA  
(ELEKTRONIKOKI SINATUA)

## **ERANSKINA**

### **EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILAREN 2024., 2025. eta 2026. URTEETARAKO DIRU-LAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOA**

#### **1.- Planaren justifikazioa.**

Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 8.1 artikulua ezartzen duenez, nahitaez eduki behar da diru-laguntzen plan estrategiko bat, eta bertan identifikatu behar dira, sailen diru-laguntzei dagokienez, diru-laguntzen aplikazioaren bidez lortu nahi diren helburu eta ondorioak, diru-laguntza horiek emateko beharrezko epea, aurreikusten diren kostuak, eta haien finantzaketa-iturria, eta beti aurrekontu-egonkortasuneko helburuak bete beharko dira.

Halaber, Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 11.4 artikulua xedatzen du diru-laguntzen plan estrategikoek hiru urterako aurreikuspenak jaso ahal izango dituztela

Manu hori betetzeko sailek izan beharreko jarduna bideratzeko, 1/2015 zenbakiko zirkularra onartu zuen Kontrol Ekonomikoko Bulegoak, diru-laguntzen plan estrategikoak egiteari buruzkoa, zenbait neurri biltzen dituen plan horiek egin eta onartzeari begira.

Zirkular hori betetzeko egin da plana, zirkular horretan ezarritako edukiarekin eta diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legean eskatutakoa beteta.

#### **2.- Aplikatu beharreko eremua.**

Planak Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren diru-laguntzen arloko jardura biltzen du.

Planari ezarritako denbora-tartea 2024ko, 2025ko eta 2026ko aurrekontu-ekitaldiak dira.

#### **3.- Proiektuaren edukia**

Aurreikusitako diru-laguntza jardunak jasotzen dituzten ardatzak biltzen ditu planak, betiere gobernu-programaren konpromisoerik lotutako ardatz horietako bakoitzari jarraikiz.

Ondoren, identifikatu egiten ditu, laburpen gisa, diru-laguntza programa guztiak egikaritzeko aurreikusitako kostuen datu globalak, eta

programa horiek sailak bere egituran dituen antolakunde-unitateekin lotzen ditu.

Azkenik, planak fitxa bat biltzen du diru-laguntza programetarako, eta bertan bilduko ditu helburuak, ekintzak eta adierazleak, aurreikusitako denbora-jokalekuarekin, helburu

dituen sektoreak, diru-laguntzak emateko prozedura, beharrezkoak diren aurrekontu- konpromisoak eta finantzaketa publikoaren ehunekoak.

#### **4.- Erronka estrategikoen eta helburuen identifikazioa**

Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren Diru-laguntzen Plan Estrategikoa 2020-2024 bitarteko XII. Legealdiko Gobernu Programaren konpromisoekin lerrokatzen da, eta, konpromiso horien barruan, sailaren jardun-eremuak direnekin, honako hauekin, hain zuzen ere:

##### 4.1. Enplegua eta susperraldi ekonomikoa

###### 4.1.1 Industria eta nazioartekotzea

Funtsezkoa da Euskadik industria-egitura indartsua izaten jarraitzea, mundura irekita egongo dena eta produktibitatearen hobekuntzaren alde egingo duena, giza baliabideen trebakuntzaren eta berrikuntzaren bidez.

Industria eta horrekin lotutako zerbitzu aurreratuak euskal ekonomiaren motorra izan behar dira. Baita gure egitura ekonomikoaren bereizgarria ere.

Helburua da industria eta zerbitzu aurreratuak BPGdaren % 40ra heltzea. Horretarako, industria aurreratuaren alde egingo duen eta Euskadin egongo den Garapen Industrialerako Plan Estrategiko bat onetsiko da. Industria horrek azpiegituren eta lurzoru industrialaren euskarri egokia izango du, baita nazioartekotzea babesteko zerbitzu eraginkorrak ere. Gainera, plan eta neurri bereziak ezarriko dira lehentasunez jardun beharreko guneetarako eta zailtasunak dituzten enpresetarako.

Helburu horiek lortzeko, konpromiso hauek hartu dira:

Garapen Industrialerako eta Nazioartekotzerako Plan Estrategikoa onartzea

Euskadin errotutako 4.0 industria eta adimen artifiziala garatzea

Enpresa txiki eta ertainak babestea  
Enpresa-azpiegiturak eta lurzoru industrialak  
Lehentasunez jardun beharreko eskualdetan eta udalerrietan  
berriazko jarduketak- planak egitea eta zailtasunak dituzten edo  
berregituratze-prozesuetan dauden enpresei laguntza ematea  
Enpresa Nazioartekotzeko Programa 2025 onestea "Garapen  
Industrialerako eta Nazioartekotzerako Plan Estrategikoan"  
txertatuta

#### 4.1.2. Ikerketa eta berrikuntza

Ikerketa, garapen teknologikoa eta berrikuntza herrialde baten garapen ekonomikoaren adierazle giltzarriak eta bere produktibitatearen zein lehiakortasunaren baldintzatzaileak dira, baita hazkunde jasangarria lortzeko faktore erabakigarria ere. Berrikuntzaren erronkari erantzuteko, beharrezkoa da esfortzu publiko-pribatu bateratua egitea eta epe luzerako estrategia bat ezartzea Euskadiko espezializazio adimendunean oinarrituz, Euskadi berrikuntzaren Europako interesgune bihurtzeko lehentasunezko helburuarekin.

Helburu horiek lortzeko, konpromiso hauek hartu dira:

Espezializazio adimenduna eta Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Plan Estrategiko berria 2030eko ikuspegiarekin

Teknologia eta Berrikuntzako Euskal Sistemaren emaitzak eta bikaintasuna hobetzea

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskal Sistema nazioartekotzea

Ikerketaren eta berrikuntzaren eremuko inbertsioak handitzea

. I+G proiektu estrategikoak, erosketa publiko berritzailea eta zibersegurtasun industrialak indartzea

Berrikuntza indartzea enpresa txiki eta ertainetan

Talentu teknologikoa garatzea eta erakartzea

Ekintzailak berritzailea babestea

#### 4.1.3. . Elikadura eta landa- eta kostalde-garapena

EAEko lehen sektorea funtsezko aktiboa da, kultura-, gizarte- eta ingurumen-balioen transmisiorako elementu gisa. Tokiko nekazaritzak, kalitatezko elikadura-produkzio jasangarria bermatzeaz gain, enplegua eta aberastasuna sortzen dituen sektorea da, baita ingurumena babesten duen aktiboa ere.

Ingurune naturala mantentzea eta klima-aldaketaren aurkako borroka ezin dira ulertu aberastasuna eta enplegua sortzen dituen euskal lehen sektore irmo eta berritzaile gabe. Nekazaritza- eta arrantza-eredu jasangarriago baterantz aurrera egitearen aldeko apustua egingo da, euskal landa- eta kostalde-espazioa zainduz eta jarduera ekonomikoa sustatuz, Euskadi Europako hegoaldeko bioekonomiaren erreferente

gisa kokatzeko, baita nekazaritza ekologikoaren eta klima-aldaketaren aurkako borrokaren eredu gisa ere.

Helburu horiek lortzeko, konpromiso hauek hartu dira:

Tokiko elikadura ekologiko, jasangarri eta osasuntsuagoa sustatzea.

Arrantza-baliabideen kudeaketa jasangarria lortzea.

Portuen kudeaketa eta euskal landa- eta kostalde-ingurunea zaintzea.

Euskal nekazaritzako elikagaien sektorea indartzea, ekintzailtzaren, berrikuntzaren eta klima-aldaketaren aurkako borrokaren erreferente gisa.

Euskadi Europako hegoaldeko bioekonomiaren interesgunea bihurtzea.

## 4.2 Bidezko trantsizio energetiko eta klimatikoa

### 4.2.1. Energia-estrategia berria

Euskal sistema energetikoaren deskarbonizaziorantz eta jasangarritasunerantz aurrera egiteko erabaki irmoa mantenduko da. Nahitaezkoa da eredu ekonomiko eta energetiko berri baterantz jotzea, erregai fosiletatik aldentzearen alde eta 2050erako berotegi- efektuko gasen emisioen neutraltasunaren alde egingo duena, Europar Batasunaren konpromisoekin bat etorritz.

Berretsi egingo da haustura hidraulikorik gabeko Euskadi bat lortzeko helburua, Eusko Legebiltzarrak 2015ean onetsitako ingurumena babesteko neurri gehigarrien legearen arabera. Ikuspegi horrekin eta Klima eta Energiako Europako Esparruarekin bat eginez, Euskadiko Estrategia Energetikoa 2030 eguneratuko da, hain zuzen ere, hauxe lortzeko: eraginkortasun energetikoa areagotzea; energia berriztagarrien erabilera handitzea eta ikerketa energetikoko euskal estrategian sakontzea, bidezko trantsizio energetiko baterako eragile giltzarriak direlako.

Helburu horiek lortzeko, konpromiso hauek hartu dira:

Energia-eraginkortasuna handitzea autokontsumoa eta banatutako sorkuntza sustatuz.

Iturri berriztagarrien erabilera areagotzea energiaren azken kontsumoan.

Ikerketa energetikoko euskal estrategian sakontzea, enpresa-egitura eta enplegua berpizteko eragile gisa.

Bidezko energia-trantsizioa bermatzea.

### 4.2.2. Klimaren aldeko ekintza

Euskadi garapen jasangarriarekin eta nazioartean adostutako helburu klimatikoekin konprometitutako erkidegoa da. Eusko Jaurlaritzaren Klima-larrialdiaren Adierazpenak konpromiso hori indartu du eta erreferentziazko erkidego gisa kokatzen du Euskadi klima-aldaketaren aurkako borrokan. Apustu irmoa egin da Euskadin "Basque Green Deal" Klimaren aldeko Akordio Sozial zabala lortzeko gure lurraldeak, Parisko Akordioarekin eta Europako Itun Berdearekin (European Green Deal) bat etorritz, batez besteko tenperatura globalak 2 gradu zentigradoak gainditzea saihesten laguntzeko eta, 2050ean, berotegiefektuko gasen emisioan herrialde neutroa izateko.

Helburu horiek lortzeko, konpromiso hauek hartu dira:

Irmoki egitea aurrera karbonoan baxua den ekonomia baterantz, enplegua sortzeko eta garapen industrial zein teknologikorako aukera gisa.

Klima-gobernantzako eredu berri bat sustatzea.

#### 4.2.3. Ekonomia zirkularra bultzatzea

Laugarren iraultza industrialak jauzi kualitatiboa dakar garapen teknologikoan, baina, horrez gain, hazkunde ekonomikoa materialen kontsumotik bereiztea eskatzen du.

Konpromisoa hartu da ekonomia zirkularreko eredu berri bat bultzatzeko, non produktuen eta materialen bizitza-zikloa ahalik eta denbora gehien luzatuko den. Eredu ekonomiko berri honen alde egiteak haxe esan nahi du: "erauzi, produzitu, erabili eta botatzea" ideiatik "murriztu, berrerabili eta birziklatzea" ideiara pasatzea. Hortaz, berrerabilpena eta prebentzioa dira hitz gakoak. Ekonomia zirkularreko eredu berri horrek enplegu berde berriak sustatzea eta berrikuntza piztea dakartza eta, horrela, Euskadiren lehiakortasuna eta hazkunde jasangarria ere hobetuko dira.

Euskadiko Ekonomia Zirkularrerako Estrategia 2030 hedatuko da. Helburu horiek lortzeko, konpromiso hauek hartu dira:

Enplegu berdea eta berrikuntza sustatzea ekonomia zirkularren eremuan.

Hondakinak murriztea eta horien birziklapena eta balorizazioa areagotzea.

#### 4.2.4 Ingurune naturalaren kontserbazioa eta biodibertsitatea zaintzea

80ko hamarkadan, Euskadik herritarren osasuna eta ingurumenaren egoera orokorra mehatxatzen zituzten kutsadura-arazo larriak zituen. Orduetik hona, ingurumen-babeseko politikak aplikatu izan dira, betiere



politika europarrekin bat etorri. Esfortzu horri esker, ingurumen-adierazle nagusiak hobetu ahal izan dira, bai uraren kalitateari dagokionez, bai lurzorua zein airearen kalitateari dagokionez. Halaber, biodibertsitatearen defentsa eta errespetu aurrera egin da. 2030eko ikuspegiarekin eta Garapen Jasangarrirako Helburuen arabera, bultzada berria emango da ingurumen-estrategia zeharkako politika gisa kokatzeko; hain zuzen ere, horrek espezie guztientzako eta gizakiarentzako oparotasun- eta ongizate-faktoretzat hartuko du ingurumenaren defentsa.

Helburu horiek lortzeko, konpromiso hauek hartu dira:

Uraren eskuragarritasuna eta kalitatea eta kudeaketa jasangarria bermatzea.

Ingurumen-politika aurreratua eta ingurune naturalaren eta ekosistemen hobekuntza sustatzea, biodibertsitatea eta lurreko zein itsasoko habitat nagusien defentsa sustatuz.

## **5.- Saileko sailburuordetzei dagozkien diru-laguntzen programen laburpena.**

Agindu honen eranskinean jasotako dirulaguntza lerroek honako zerrenda hau dute:

### **5.- Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saila..**

#### **5.1.- Teknologia, Berrikuntza eta Eraldaketa Digitaleko Sailburuordetza**

##### 5.1.1.- Teknologia eta Berrikuntza Zuzendaritza

5.1.1.1.- HAZITEK, enpresetako I+Gri laguntzeko programa

5.1.1.2.- ELKARTEK arlo estrategikoetan ikerketa kolaboratiboari laguntzeko programa

5.1.1.3.- Foku Anitzeko Teknologia Zentroen eta Ikerketa Kooperatiboko Zentroen jardura ez-ekonomikoa laguntzeko programa (EMAITEK PLUS)

5.1.1.4.- Industria-doktoretzak egiteko eta ikertzaileak sartzeko laguntza-programa-BIKAINTEK

5.1.1.5.- Azpiegitura zientifiko-teknologikoak eta ekipamendu zientifiko-teknikoa eskuratzeko laguntza-programa - AZPITEK

5.1.1.6.- Dirulaguntza izenduna Espalazio bidezko Neutroien Iturri Europarra Partzuergoari

5.1.1.7.- Elhuyarren dirulaguntza izenduna

- 5.1.1.8.- Dirulaguntza izenduna Euskal Zientzia eta Teknologia Partzuergoa-Basque Research and Technology Alliance (BRTA)
- 5.1.1.9.- Dirulaguntza izenduna: Donostia International Physics Center
- 5.1.1.10.- Dirulaguntza izenduna EUSKALIT - Kalitatea Sustatzeko Euskal Fundazioari.
- 5.1.1.11.- BASQUEVOLT – INGEBAT proiektua zuzeneko dirulaguntza
- 5.1.1.12.- BasqueCCAM proiektuaren zuzeneko dirulaguntza
- 5.1.1.13.- Dirulaguntza izenduna Innobasqueri
- 5.1.1.14.- Dirulaguntza izenduna Fabrika Fundazioari, "Enpresen Kultur Eraldaketarako Errendimendu Handiko Zentroa" proiektua abian jartzeko.
- 5.1.1.15.- Dirulaguntza izenduna Deusto Fundazioari (Orkestra)
- 5.1.1.16.- Osasunari aplikatutako Bioteknologiaren Plan Osagarria-Next Generation
- 5.1.1.17.- Energia eta hidrogeno berriztagarria-Next Generation plan osagarria

## **5.2.- Industria sailburuordetza**

### 5.2.1.- Industriaren eta Energia Trantsizioaren Zuzendaritza

- 5.2.1.1.- GAUZATU INDUSTRIA programa
- 5.2.1.2.- BIDERATU BERRIA programa
- 5.2.1.3.- INDARTU programa
- 5.2.1.4.- Dirulaguntza izenduna DONOSTIA ZINEMALDIA SArI.
- 5.2.1.5.- CONFEBASKen dirulaguntza izenduna
- 5.2.1.6.- CEBEKEN dirulaguntza izenduna
- 5.2.1.7.- ADEGI dirulaguntza izenduna
- 5.2.1.8.- SEA dirulaguntza izenduna
- 5.2.1.9.- EAEko KLUSTERRAK dinamizatzen dituzten erakundeei laguntzeko programa
- 5.2.1.10.- Industria-sektoreko ETEetan eta enpresa handietan energia-eraginkortasuneko jarduketetarako laguntzak
- 5.2.1.11.- DESKARBONIZAZIO PROGRAMA INDUSTRIAN

### 5.2.2.- Portu eta Itsas Gaietako Zuzendaritza

- 5.2.2.1.- Euskal Herriko Unibertsitatearentzako (EHU) dirulaguntza, "Saltillo" ontziaren mantentze-lanetarako

- 5.2.2.2.- Euskal Herriko Unibertsitatearentzako dirulaguntza
- 5.2.2.3.- Deustuko Unibertsitatearentzako dirulaguntza – Itsas eta Portu Enpresak eta Itsas Zuzenbidea Kudeatzeko Masterra
- 5.2.2.4.- Euskal Ontzijabeen Elkarteari dirulaguntza
- 5.2.2.5.- Euskal Herriko Itsas Foroari dirulaguntza
- 5.2.2.6.- Giport Elkarteari dirulaguntza
- 5.2.2.7.- Uniport Elkarteari dirulaguntza
- 5.2.2.8.- Merkataritza Itsasketako Kapitainen Bizkaiko Elkarteari dirulaguntza
- 5.2.2.9.- Itsas Ingeniarien Elkarte Profesionalarentzako (ASMANAVE) dirulaguntza.
- 5.2.2.10.- Sail in Festival dirulaguntza. Sail In Pro jarduerak, kirol-nabigazioko industrian ezagutzak eta negozioak trukatzeko jardunaldiak
- 5.2.2.11.- Euskal Herriko Unibertsitateari (EHU) dirulaguntza ematea, "Manual del negocio marítimo" itzultzeko eta argitaratzeko.
- 5.2.2.12.- Debako itsasadarraren ezker aldean dartsena birgaitzeko hitzarmena

### **5.3.- Nekazaritzako, Arrantzako eta Elikagai Politikako Sailburuordetza**

#### 5.3.1.- Landa Garapeneko eta Europar Politiketako Zuzendaritza

- 5.3.1.1.- Sasoikako langileentzako ostatuetaarako laguntzak
- 5.3.1.2.- Inbertsio ez-produktiboak landa-eremuetako oinarriko zerbitzuetan, EREIN berria
- 5.3.1.3.- Landa-ingurunea eta itsasertza dinamizatzeko gizarte-ekitaldiak egiteko laguntzak
- 5.3.1.4.- Itsasertzeko eremuak garatzeko eta bultzatzeko laguntzak
- 5.3.1.5.- Landa-eremuan ekintzailtzarako, enplegua sortzeko eta enpresak sortu eta/edo garatzeko laguntzak, LEADER eremuan
- 5.3.1.6.- Landa Garapeneko Elkarteen laguntza izendunak
- 5.3.1.7.- Kudeaketa Zentroentzako (RICAV) laguntza izendunak
- 5.3.1.8.- Laguntza izenduna Munduko Landa Foroari
- 5.3.1.9.- Tokiko Ekintza Taldeentzako laguntza izenduna, partaidetzako toki-garapeneko estrategien bidez eragiketarako ezartzeko (LEADER)
- 5.3.1.10.- MENDINET Tokiko Ekintza Taldearentzako laguntza izenduna
- 5.3.1.11.- NEKATURi dirulaguntza izenduna
- 5.3.1.12.- Emakume Nekazarien Estatutuaren esparruan emakumeen eta

gizonen arteko berdintasuna bultzatzeko laguntzak.

### 5.3.2.- Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritza

5.3.2.1.- Elkarte profesionalak

5.3.2.2.- Izaera sindikaleko nekazaritzako erakunde profesionalak

5.3.2.3.- Bertako arrazen elkarteak

5.3.2.4.- Laguntza izendunak

5.3.2.5.- Laguntza izendunak

5.3.2.6.- Ziurtatutako ekoizpen ekologikorako trantsizioa bultzatzeko laguntzak

5.3.2.7.- Nekazaritza-ustategietarako laguntzak, animalien ongizateari buruzko Welfair ziurtagiria lortzeko

5.3.2.8.- Azpisektore berritzaileak sustatzea

5.3.2.9.- Iraunkortasunerako errentarako oinarrizko laguntza

5.3.2.10.- Klimaren eta ingurumenaren aldeko araubideak (ekoerregimenak)

5.3.2.11.- Errentarako laguntza osagarria nekazari gazteentzat

5.3.2.12.- Lotutako errentarako laguntza

5.3.2.13.- Birbanaketarako laguntza osagarria

5.3.2.14.- Mahastien berregituraketa eta birmoldaketa

5.3.2.15.- Erleen esku-hartze sektoriala

### 5.3.3.- Arrantza eta Akuikultura Zuzendaritza

5.3.3.1.- Arrantza-, merkataritza- eta akuikultura-egiturak laguntzeko programa

5.3.3.2.- Arrantza-, merkataritza- eta akuikultura-egiturak laguntzeko programa (ekoizpen- eta merkaturatze-planak)

5.3.3.3.- Nautikako eta arrantzako irakaskuntzen arloko ikasketak egiteko beka-programa.

5.3.3.4.- Arrantza-guneak garatzea, partaidetzazko toki-garapeneko estrategiak (PTGE) aplikatuz

5.3.3.5.- ITSASORATU beka-programa

5.3.3.6.- LAGUNTZA IZENDUNAK

5.3.3.7.- LAGUNTZA IZENDUNAK

5.3.3.8.- LAGUNTZA IZENDUNA. ATUNONTZI IZOZKAILUAREN SEKTOREKO PLAN ESTRATEGIKOA

5.3.3.9.- LAGUNTZA IZENDUNA. Datuak biltzea

5.3.3.10.- LAGUNTZA IZENDUNA. BTWC – Atunaren kudeaketa jasangarria sustatzea, jardunbide egokien ezagutzatik eta lidergotik abiatuta.

5.3.3.11.- LAGUNTZA IZENDUNA. AZTI Fundazioaren jarduera ez-ekonomikoak finantzatzea

#### 5.3.4.- Elikagaien Kalitate eta Industriako Zuzendaritza

5.3.4.1.- Nekazariak, abeltzainak eta ekoizleen elkarteak kalitate-programetan parte har dezaten sustatzea

5.3.4.2.- LEHIATU INB (nekazaritza, basogintza, elikadura eta arrantza)

5.3.4.3.- Fruten eta barazkien SZ (esku-hartze sektoriala)

5.3.4.4.- ISV (Ardoaren Sektoreko Esku-hartzea) – inbertsioa

5.3.4.5.- ISV (ardoaren esku-hartze sektoriala) – ardoa hirugarren herrialdeetan sustatzea

5.3.4.6.- SENDOTU (nekazaritza, basogintza, elikadura, arrantza eta landa-garapena)

5.3.4.7.- HANDITU EGURRA

5.3.4.8.- LEHIATU SUSTAPENA

5.3.4.9.- Nekazarien elkarteak garatzeko laguntza

5.3.4.10.- GASTROBIKAIN (jatetxe-gastronomiaren sektorea)

5.3.4.11.- HANDITU INNOVA

5.3.4.12.- HANDITU

5.3.4.13.- ARDOINB

5.3.4.14.- LAGUNTZA IZENDUNAK

5.3.4.15.- LAGUNTZA IZENDUNAK

5.3.4.16.- ELKARTEAK PROGRAMA

5.3.4.17.- BASO-BIOEKONOMIAREN BERRIKUNTZARAKO LAGUNTZAK

5.3.4.18.- BERRIKUNTZA PROIEKTUAK LANKIDETZAN

5.3.4.19.- IKERTALENT, PRESTATZEN ARI DIREN IKERTZAILEAK ETA TEKNOLOGOAK

5.3.4.20.- BERRIKER LAGUNTZAK, I+G+B PROIEKTUAK

5.3.4.21.- ELIKAGAI-KATEAREN DIGITALIZAZIOA

5.3.4.22.- ONEKIN LAGUNTZAK

## **5.4.- Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetza**

### 5.4.1.- Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren Zuzendaritza

5.4.1.1.- Enpresentzako dirulaguntzak, ingurumena babesteko inbertsioak egiteko.

5.4.1.2.- Euskadin Ekonomia Zirkularraren Estrategia ezartzeko laguntzak

5.4.1.3.- Ekonomia zirkularreko berrikuntza-proiektuetarako laguntzak.

5.4.1.4.- Enpresa txiki eta ertainentzako laguntzak (ETE zirkularra)

5.4.1.5.- Hitzarmena UPV/EHUrekin, kutsadura atmosferikoko prozesuekin

5.4.1.6.- Sociedad Asfaltos Urretxu SA: Troia meategia leheneratzeko jarduerak

### 5.4.2.- Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritza

5.4.2.1.- Natura Ondarearen kontserbazioan ezagutza sortzeko proiektuak egiten dituzten erakunde pribatuentzako dirulaguntzak

5.4.2.2.- Hitzarmena Plentziako Itsas Estazioarekin (PIE) UPV/EHU. Hondartzeak

5.4.2.3.- Aranzadi elkartearekiko hitzarmena. Natura-ondarearen ezagutza eta kontserbazioa hobetzeko jarduketak

5.4.2.4.- Europarc-Espainiarekin hitzarmena, eremu babestuak hobetzeko

5.4.2.5.- Geogarapenerako dirulaguntza (Zumaiako Geoparkea, ingurumen-jarduketak)

5.4.2.6.- Irabazi-asmorik gabeko erakunde pribatuentzako dirulaguntzak, ingurumen-boluntariotzako lanak egiteko.

5.4.2.7.- Hitzarmena MATER MUSEOArekin, itsas ingurunean ingurumen-hezkuntzako ekintzak onartzeko

5.4.2.8.- Azpeitiko Udalarekin hitzarmena, Azpeitiko Ekoetxea kudeatzeko

5.4.2.9.- Urdaibaiko EKZP aplikatzearen ondoriozko baso-konpentsazioak

5.4.2.10.- Hitzarmena BC3 Basque Centre for Climate Change elkartearekin

5.4.2.11.- Garapen iraunkorrerako eta ingurumen-hezkuntzarako UNESCO Katedrari dirulaguntza

- 5.4.2.12.- UNESCO ETXEARENTZAKO dirulaguntza
- 5.4.2.13.- Añanako Gatz Haraneko jardueretarako Gatz Harana Fundazioarekiko hitzarmena
- 5.4.2.14.- Garapen jasangarria sustatzeko ekintzak egiten dituzten udalentsako dirulaguntzak.
- 5.4.2.15.- Udalentsako dirulaguntzak: Eskolako Agenda 21 lerroa
- 5.4.2.16.- Udalentsako dirulaguntzak: jasangarritasunerako hezkuntza-jarduerak
- 5.4.2.17.- Asteklima: "Toki-eremuan jarduerak sustatzea, herritarrak klima-aldaketaren arloan ekintzara mobilizatzeko"
- 5.4.2.18.- US2030 tokiko berrikuntza-proiektuak
- 5.4.2.19.- Bizkaiko Kofradien Federazioa – Itsasoko Zaborrak
- 5.4.2.20.- Gipuzkoako Kofradien Federazioa – Itsasoko Zaborrak
- 5.4.2.21.- Fundación ELEC NOR – Basuras Marinas
- 5.4.2.22.- Alde Behartsuak Leheneratzeko Plana
- 5.4.2.23.- Ingurumen-hezkuntzaren arloan herritarrei zuzendutako trebakuntza- eta prestakuntza-ekintzak, -ikastaroak eta -jarduerak garatzen dituzten ikastetxe, erakunde eta erakundeentzako dirulaguntzak.
- 5.4.2.24.- Dirulaguntzak ematea familiei, hirugarren adinekoei, gazteei eta, oro har, herritarrei zuzendutako klima-aldaketaren erronkekin zerikusia duten proiektuak garatzen dituzten zentro, entitate eta erakundeei.
- 5.4.2.25.- Ingurumena babesteko, konpontzeko eta hobetzeko herritarrak gaitzearekin eta ahalduntzearekin lotutako ideia berritzaileak garatzen dituzten erakunde eta pertsona fisikoentzako dirulaguntzak.
- 5.4.2.26.- Herritarren zientzia klima-aldaketaren arloan
- 5.4.2.27.- Hitzarmena Global Action Planarekin, Sare Berdeak kanpainako zabalkunde-lanetarako eta ingurumen-hezkuntzarako



## 5.- Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saila.

### 5.1.- Teknologia, Berrikuntza eta Eraldaketa Digitaleko Sailburuordetza.

#### 5.1.1.- Teknologia eta Berrikuntza Zuzendaritza

##### 5.1.1.1. 1. Ardatz estrategikoa: Oparotasuna. Enplegua eta susperraldi ekonomikoa

<b>Helburu estrategikoa: I+Gren eremuan Europako batezbestekoarekin parekatzea</b>			
<b>Organoa: Teknologia eta Berrikuntza Zuzendaritza / Teknologiako, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Sailburuordetza</b>			
<b>Programa: 5413 Teknologia eta 5414 Berrikuntza Funtsa</b>			
<b>Dirulaguntza-lerroa: HAZITEK, enpresen I+Gri laguntzeko programa</b>			
<b>Helburuak, ekintzak eta adierazleak</b>			
<b>Helburua:</b> Ikerketa Industrialeko edo Garapen Esperimentaleko Proiektuak egiteko laguntza, lehiaren eta strategiaren arloan, Euskal Autonomia Erkidegoko enpresa-sektorean, bai eta 2030erako Euskadiko Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Planaren barruko espezializazio esparruetan ere.	<b>2024</b>	<b>2025</b>	<b>2026</b>
<b>Ekintza:</b> Izaera estrategikoko proiektuentzako laguntza			
<b>Adierazleak</b>			
Lagundutako proiektu estrategiko bereizien kopurua	<b>2</b>	<b>3</b>	<b>3</b>
Lagundutako lankidetzako proiektu estrategikoen kopurua	<b>34</b>	<b>35</b>	<b>36</b>
Proiektu estrategikoetan lagundutako enpresen kopurua	<b>180</b>	<b>185</b>	<b>190</b>
<b>Ekintza:</b> Izaera lehiakorreko proiektuentzako laguntza			
<b>Adierazleak</b>			



Lagundutako produktu/prozesu/zerbitzuen garapen-proiektuen kop.	<b>675</b>	<b>680</b>	<b>70</b>
Produktu/prozesu/zerbitzuen garapen-proiektuetan lagundutako enpresa kop.	<b>690</b>	<b>700</b>	<b>775</b>
Lagundutako enpresa arteko elkarlaneko lehiakortasun-proiektuen kop.	<b>240</b>	<b>250</b>	<b>255</b>
Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskal Sareko eragileekin abiarazitako lehiakortasun-proiektuen kopurua.	<b>515</b>	<b>525</b>	<b>535</b>
<b>Aurrekontu-konpromisoak eta finantzaketa publiko osoarekiko finantzaketa-ehunekoa.</b>			
	<b>2024</b>	<b>2025</b>	<b>2026</b>
	Zenbatekoa €-tan (Ordainketa+konpromisoa)	Zenbatekoa €-tan (zenbatetsia)	Zenbatekoa €-tan (zenbatetsia)
<b>VII. aurrekontu-kapitulua- Hazitek Estrategikoak</b>	<b>50.000.000</b>	<b>51.500.000</b>	<b>53.000.000</b>
<b>VII. aurrekontu-kapitulua- Hazitek Lehiakorrak</b>	<b>42.500.000</b>	<b>43.500.000</b>	<b>44.500.000</b>

<b>Helburu dituen sektoreak eta emateko prozedura</b>	
Helburu dituen sektoreak:	Enpresak, ETEak eta enpresa handiak, enpresa elkarteak eta Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskal Sareko agenteak (teknologian oinarritutako enpresa berrien proiektuetarako)
Emateko prozedura eta instrumentalizatzeko modua:	Lehia-prozedura. Dirulaguntza ez-itzulgarria
Dirulaguntzan emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna indartzen duten jarduketak egotea. Deskribapena:	Genero-ikuspegia kontuan hartzea proiektuen ebaluazioan, bai eta Proiektu-burutzak eta G/E presentzia orekatua bermatzea ebaluazio-batzordeetan. 50 langiletik gorako enpresek berdintasun-plana eta jazarpenaren aurkako prebentzio-neurriak izan beharko dituzte.

### 5.1.1.2. 1. Ardatz estrategikoa: Oparotasuna. Enplegua eta susperraldi ekonomikoa

<b>Helburu estrategikoa: I+Gren eremuan Europako batezbestekoarekin parekatzea</b>
<b>Organoa: Teknologia eta Berrikuntza Zuzendaritza / Teknologiko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Sailburuordetza</b>
<b>Programa: 5413 Teknologia eta 5414 Berrikuntza Funtsa</b>
<b>Dirulaguntza-lerroa: ELKARTEK, alor estrategikoetan elkarlaneko ikerkuntza babesteko programa</b>

<b>Helburuak, ekintzak eta adierazleak</b>			
<b>Helburua:</b> Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskal Sarea osatzen duten ikerketa, garapen eta berrikuntzako erakundeek egindako Elkarlaneko Ikerketa sustatzeko laguntza, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskadi 2030 Planaren espezializazio-arloetan jasota dagoen bezala.	<b>2024</b>	<b>2025</b>	<b>2026</b>
<b>Ekintza:</b> Elkarlaneko ikerketarako laguntzak, alor estrategikoetan			
<b>Adierazleak</b>			
Alor estrategikoetan lagundutako oinarrizko elkarlaneko ikerketa-proiektuak	<b>35</b>	<b>37</b>	<b>39</b>
Lagundutako industria-potentzial handiko ikerketa-proiektuen kopurua	<b>15</b>	<b>17</b>	<b>18</b>
Lagundutako interes bereziko ekintzen kopurua	<b>8</b>	<b>9</b>	<b>10</b>
Lagundutako eragileen kopurua	<b>65</b>	<b>68</b>	<b>70</b>
<b>Aurrekontu-konpromisoak eta finantzaketa publiko osoarekiko finantzaketa-ehunekoa.</b>			
	<b>2024</b>	<b>2025</b>	<b>2026</b>
	Zenbatekoa €-tan (Ordainketa+konpromisoa)	Zenbatekoa €-tan (zenbatetsia)	Zenbatekoa €-tan (zenbatetsia)
<b>VII. aurrekontu-kapitulua</b>	<b>44.000.000</b>	<b>46.000.000</b>	<b>48.000.000</b>

<b>Helburu dituen sektoreak eta emateko prozedura</b>	
Helburu dituen sektoreak:	Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Sareko agenteak
Emateko prozedura eta instrumentalizatzeko modua:	Lehia-prozedura. Dirulaguntza ez-itzulgarria
Dirulaguntzan emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna indartzen duten jarduketak egotea.	Genero-ikuspegia kontuan hartzea proiektuen ebaluazioan, bai eta Proiektu-burutzak eta G/E presentzia orekatua bermatzea ebaluazio-

Deskribapena:	batzordeetan. 50 langiletik gorako enpresek berdintasun-plana eta jazarpenaren aurkako prebentzio-neurriak izan beharko dituzte.

**5.1.1.3. 1. ardatz estrategikoa 1: Oparotasuna. Enplegua eta susperraldi ekonomikoa**

<b>Helburu estrategikoa: I+Gren eremuan Europako batezbestekoarekin parekatzea</b>
<b>Organoa: Teknologia eta Berrikuntza Zuzendaritza / Teknologiako, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Sailburuordetza</b>
<b>Programa: 5413 Tecnologia eta 5414 Berrikuntza Funtsa</b>
<b>Dirulaguntza-lerroa: EMAITEK PLUS, foku anitzeko teknologia-zentroetako eta ikerketa kooperatiboko zentroetako jarduera ez-ekonomikoari laguntzeko programa</b>

<b>Helburuak, ekintzak eta adierazleak</b>			
<b>Helburua:</b> Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskal Sareko foku anitzeko teknologia-zentroetako eta ikerketa kooperatiboko zentroetako jarduera ez-ekonomikoa laguntzea, jardueraren emaitzen ebaluazioaren eta analisiaren bitartez, maila globalean, finantzaketa esleituz EMAITEK PLUS programaren bidez.	<b>2024</b>	<b>2025</b>	<b>2026</b>
<b>Ekintza:</b> Teknologia-zentroyen eta elkarlaneko ikerketako zentroyen jarduerarentzako laguntza, horien emaitzen analisiaren bidez			
<b>Adierazleak</b>			
Lagundutako zentroyen kopurua	<b>15</b>	<b>15</b>	<b>15</b>
Argitalpen zientifikoaren kopurua	<b>1400</b>	<b>1450</b>	<b>1500</b>
Eskatutako patenteen kopurua	<b>130</b>	<b>140</b>	<b>150</b>
Azken 5 urteetan sortutako teknologian oinarritutako enpresa berrien fakturazioa	<b>35.000 mil. €</b>	<b>50.000 mil. €</b>	<b>60.000 mil. €</b>
<b>Aurrekontu-konpromisoak eta finantzaketa publiko osoarekiko finantzaketa-ehunekoa.</b>			
	<b>2024</b>	<b>2025</b>	<b>2026</b>
	Zenbatekoa €-tan (Ordainketa+konpromisoa)	Zenbatekoa €-tan (zenbatetsia)	Zenbatekoa €-tan (zenbatetsia)
<b>VII. aurrekontu-kapitulua</b>	<b>73.000.000</b>	<b>75.000.000</b>	<b>77.000.000</b>

<b>Helburu dituen sektoreak eta emateko prozedura</b>	
Helburu dituen sektoreak:	Foku anitzeko teknologia-zentroak eta elkarlaneko ikerketako zentroak
Emateko prozedura eta instrumentalizatzeko modua:	Lehia-prozedura. Dirulaguntza ez-itzulgarria
Dirulaguntzan emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna	Ebaluazio Batzordeetan gizon eta emakumeen presentzia orekatua

indartzen duten jarduketak egotea.  
Deskribapena:

bermatzea.

**5.1.1.4. 1. ardatz estrategikoa: Oparotasuna. Enplegua eta susperraldi ekonomikoa**

<b>Helburu estrategikoa: I+Gren eremuan Europako batezbestekoarekin parekatzea</b>
<b>Organoa: Teknologia eta Berrikuntza Zuzendaritza / Teknologiako, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Sailburuordetza</b>
<b>Programa: 5413 Teknologia eta 5414 Berrikuntza Funtsa</b>
<b>Dirulaguntza-lerroa: Industria-doktoretzak egiteko eta ikertzaileak sartzeko laguntzen programa - BIKAINTEK</b>

<b>Helburuak, ekintzak eta adierazleak</b>			
<b>Helburua:</b> Laguntza ematea industriako doktoreen prestakuntzari, eta Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko eragileetan eta enpresetan doktorego-titulua duten ikertzaileak sartzeko, itzuli behar ez diren dirulaguntzen bitartez, ikertzaileak kontratatzeko.	<b>2024</b>	<b>2025</b>	<b>2026</b>
<b>Ekintza:</b> Industriako doktoreen prestakuntza			
<b>Adierazleak</b>			
Lagundutako industria-doktoretzen kopurua	<b>32(17 em,15 giz)</b>	<b>34(18 em, 16 giz)</b>	<b>36(19 em, 17 giz)</b>
<b>Ekintza:</b> Ikertzaile doktoreak kontratatzea			
<b>Adierazleak</b>			
ZTBESeko enpresen eta agenteetan kontratatutako doktore berrien kopurua	<b>48(25 em,23 giz)</b>	<b>50(26 em, 24H giz)</b>	<b>52(28 em, 26 giz)</b>
<b>Aurrekontu-konpromisoak eta finantzaketa publiko osoarekiko finantzaketa-ehunekoa.</b>			
	<b>2024</b>	<b>2025</b>	<b>2026</b>
	Zenbatekoa €-tan (Ordainketa+konpromisoa)	Zenbatekoa €-tan (zenbatetsia)	Zenbatekoa €-tan (zenbatetsia)
<b>VII. aurrekontu-kapitulua</b>	<b>5.670.000</b>	<b>5.800.000</b>	<b>6.000.000</b>

<b>Helburu dituen sektoreak eta emateko prozedura</b>	
Helburu dituen sektoreak:	<b>Enpresak, foku anitzeko teknologia-zentroak eta elkarlaneko ikerketako zentroak</b>
Emateko prozedura eta instrumentalizatzeko modua:	<b>Lehia-prozedura. Dirulaguntza ez-itzulgarria</b>
Dirulaguntzan emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna indartzen duten jarduketak egotea. Deskribapena:	<b>Proiektuak baloratzean generoaren ikuspegia kontuan izatea</b>

**5.1.1.5.- 1. Ardatz estrategikoa : Oparotasuna. Enplegua eta susperraldi ekonomikoa**

**Helburu estrategikoa: I+Gren eremuan Europako batezbestekoarekin parekatzea**

**Organoa: Teknologia eta Berrikuntza Zuzendaritza / Teknologiako, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Sailburuordetza**

**Programa: 5413 Tecnologia**

**Dirulaguntza-lerroa: Azpiegitura zientifiko-teknologikoak eta ekipamendu zientifiko-teknikoa eskuratzeko laguntza-programa - AZPITEK**

**Helburuak, ekintzak eta adierazleak**

	2024	2025	2026
<b>Helburua:</b> I+G+B garatzeko beharrezkoa den ekipamendu zientifiko-teknikoa eskuratzeko, instalatzea eta eguneratzea, eta emaitzak balioztatu eta frogatzea; Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskal Sarean Foku Anitzeko Teknologia Zentro gisa ziurtatutako eragileek egin beharko dute lan hori.			
<b>Ekintza:</b> Azpiegitura zientifiko-teknologikoak eta ekipamendu zientifiko-teknikoa eskuratzeko proiektuentzako laguntza.			
<b>Adierazleak</b>			
Onartutako proiektu kopurua	20	24	26
<b>Aurrekontu-konpromisoak eta finantzaketa publiko osoarekiko finantzaketa-ehunekoa.</b>			
	2024	2025	2026
	Zenbatekoa €-tan (Ordainketa+konpromisoa)	Zenbatekoa €-tan (zenbatetsia)	Zenbatekoa €-tan (zenbatetsia)
<b>VII. aurrekontu-kapitulua</b>	<b>9.000.000</b>	<b>11.000.000</b>	<b>13.000.000</b>

**Helburu dituen sektoreak eta emateko prozedura**

Helburu dituen sektoreak:	Foku anitzeko teknologia-zentroak eta elkarlaneko ikerketako zentroak
Emateko prozedura eta instrumentalizatzeko modua:	Lehia-prozedura. Dirulaguntza ez-itzulgarria
Dirulaguntzan emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna indartzen duten jarduketak egotea. Deskribapena:	Genero-ikuspegia kontuan hartzea proiektuen ebaluazioan, bai eta Proiektu-burutzak eta G/E presentzia orekatua bermatzea ebaluazio-batzordeetan.

	50 langiletik gorako enpresek berdintasun-plana eta jazarpenaren aurkako prebentzio-neurriak izan beharko dituzte.
--	--



**5.1.1.6.- 1. Ardatz estrategikoa: Oparotasuna. Enplegua eta susperraldi ekonomikoa**

<b>Helburu estrategikoa: I+Gren eremuan Europako batezbestekoarekin parekatzea</b>
<b>Organoa: Teknologia eta Berrikuntza Zuzendaritza / Teknologiako, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Sailburuordetza</b>
<b>Programa: 5413 Teknologia</b>
<b>Dirulaguntza-lerroa: Dirulaguntza izenduna Espalazio bidezko Neutroien Europako Iturriaren Partzuergoari</b>

<b>Helburuak, ekintzak eta adierazleak</b>			
<b>Helburua:</b> Europako Espalazio bidezko Neutroien Iturriaren Espainiako egoitza eraiki, hornitu eta ustiatzea (ESS – BILBAO EUROPEAN SPALLATION SOURCE BILBAO)	<b>2024</b>	<b>2025</b>	<b>2026</b>
<b>Ekintza:</b> ESS Bilbaoren eraikuntza, ekipamendu eta ustiapen kostuen finantzaketa			
<b>Adierazleak</b>			
Lagundutako zentro kopurua	1	1	1
<b>Aurrekontu-konpromisoak eta finantzaketa publiko osoarekiko finantzaketa-ehunekoa.</b>			
	<b>2024</b>	<b>2025</b>	<b>2026</b>
	Zenbatekoa €-tan (Ordainketa+konpromisoa)	Zenbatekoa €-tan (zenbatetsia)	Zenbatekoa €-tan (zenbatetsia)
<b>VII. aurrekontu-kapitulua</b>	<b>907.184</b>	<b>907.184</b>	<b>686.388</b>

<b>Helburu dituen sektoreak eta emateko prozedura</b>	
Helburu dituen sektoreak:	ESS – BILBAO EUROPEAN SPALLATION SOURCE BILBAO
Emateko prozedura eta instrumentalizatzeko modua:	Dirulaguntza izenduda / Hitzarmena
Dirulaguntzan emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna indartzen duten jarduketak egotea. Deskribapena:	

**5.1.1.7.- 1. Ardatz estrategikoa: Oparotasuna. Enplegua eta susperraldi ekonomikoa**

<b>Helburu estrategikoa: I+Gren eremuan Europako batezbestekoarekin parekatzea</b>
<b>Organoa: Teknologia eta Berrikuntza Zuzendaritza / Teknologiako, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Sailburuordetza</b>
<b>Programa: 5413 Teknologia</b>
<b>Dirulaguntza-lerroa: Diru-laguntza izenduna ELHUYAR</b>

<b>Helburuak, ekintzak eta adierazleak</b>			
<b>Helburua:</b> Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza hedatzea EAEn	<b>2024</b>	<b>2025</b>	<b>2026</b>
<b>Ekintza:</b> Teknopolis I+G+b hedatzeko telebista-programa finantzatzea			
<b>Adierazleak</b>			
Lagundutako zentroyen kopurua	1	1	1
<b>Aurrekontu-konpromisoak eta finantzaketa publiko osoarekiko finantzaketa-ehunekoa.</b>			
	<b>2024</b>	<b>2025</b>	<b>2026</b>
	Zenbatekoa €-tan (Ordainketa+konpromisoa)	Zenbatekoa €-tan (zenbatetsia)	Zenbatekoa €-tan (zenbatetsia)
<b>IV. aurrekontu-kapitulua</b>	<b>350.000</b>	<b>350.000</b>	<b>350.000</b>

<b>Helburu dituen sektoreak eta emateko prozedura</b>	
Helburu dituen sektoreak:	ELHUYAR
Emateko prozedura eta instrumentalizatzeko modua:	Dirulaguntza izenduda / Sailburuordearen ebazpena
Dirulaguntzan emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna indartzen duten jarduketak egotea. Deskribapena:	Teknopolis programaren programazioan genero- berdintasunaren helburuak jasotzen dira

**5.1.1.8.- Ardatz estrategikoa 1: Oparotasuna. Enplegua eta susperraldi ekonomikoa**

**Helburu estrategikoa: I+Gren eremuan Europako batezbestekoarekin parekatzea**

**Organoa: Teknologia eta Berrikuntza Zuzendaritza / Teknologiako, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Sailburuordetza**

**Programa: 5413 Tecnologia**

**Dirulaguntza-lerroa: Dirulaguntza izenduna Basque Research and Technology Alliance (BRTA) Euskal Partzuergo Zientifiko Teknologikoari**

**Helburuak, ekintzak eta adierazleak**

<b>Helburua:</b> Basque Research and Technology Alliance (BRTA) Euskal Partzuergo Zientifiko-teknologikoaren egitura mantentzea	<b>2024</b>	<b>2025</b>	<b>2026</b>
<b>Ekintza:</b> Basque Research and Technology Alliance (BRTA) finantzatzea			
<b>Adierazleak</b>			
Lagundutako zentro kopurua	1	1	1
<b>Aurrekontu-konpromisoak eta finantzaketa publiko osoarekiko finantzaketa-ehunekoa.</b>			
	<b>2024</b>	<b>2025</b>	<b>2026</b>
	Zenbatekoa €-tan (Ordainketa+konpromisoa)	Zenbatekoa €-tan (zenbatetsia)	Zenbatekoa €-tan (zenbatetsia)
<b>IV. aurrekontu-kapitulua</b>	<b>325.000</b>	<b>500.000</b>	<b>500.000</b>

**Helburu dituen sektoreak eta emateko prozedura**

Helburu dituen sektoreak:	Basque Research and Technology Alliance (BRTA)
Emateko prozedura eta instrumentalizatzeko modua:	Dirulaguntza izenduna / Hitzarmena
Dirulaguntzan emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna indartzen duten jarduketak egotea. Deskribapena:	

**5.1.1.9.- 1. Ardatz estrategikoa 1: Oparotasuna. Enplegua eta susperraldi ekonomikoa**

**Helburu estrategikoa: I+Gren eremuan Europako batezbestekoarekin parekatzea**

**Organoa: Teknologia eta Berrikuntza Zuzendaritza / Teknologiako, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Sailburuordetza**

**Programa: 5413 Tecnologia**

**Dirulaguntza-lerroa: Dirulaguntza izenduna - Donostia International Physics Center**

**Helburuak, ekintzak eta adierazleak**

Helburua: Donostia International Physics Centerren egitura mantentzea	2024	2025	2026
Ekintza: Donostia International Physics Centerren finantzaketa			
<b>Adierazleak</b>			
Lagundutako zentro kopurua	1	1	1
<b>Aurrekontu-konpromisoak eta finantzaketa publiko osoarekiko finantzaketa-ehunekoa.</b>			
	2024	2025	2026
	Zenbatekoa €-tan (Ordainketa+konpromisoa)	Zenbatekoa €-tan (zenbatetsia)	Zenbatekoa €-tan (zenbatetsia)
<b>IV. aurrekontu-kapitulua</b>	<b>420.000</b>	<b>420.000</b>	<b>420.000</b>

**Helburu dituen sektoreak eta emateko prozedura**

Helburu dituen sektoreak:	<b>Donostia International Physics Center</b>
Emateko prozedura eta instrumentalizatzeko modua:	<b>Dirulaguntza izenduna / Sailburuordearen ebazpena</b>
Dirulaguntzan emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna indartzen duten jarduketak egotea. Deskribapena:	

**5.1.1.10.- Ardatz estrategikoa 1: Oparotasuna. Enplegua eta susperraldi ekonomikoa**

**Helburu estrategikoa: I+Gren eremuan Europako batezbestekoarekin parekatzea**

**Organoa: Teknologia eta Berrikuntza Zuzendaritza / Teknologiako, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Sailburuordetza**

**Programa: 7214 BERRIKUNTZA ETA LEHIAKORTASUN ESTRATEGIA**

**Dirulaguntza-lerroa: EAEko industriagunean berrikuntza ezartzea kudeaketa aurreratuaren ezarpena sustatzearen bidez - Euskalit- Kalitatearen Sustapenerako Euskal Erakundeari diru-laguntza izenduna**

**Helburuak, ekintzak eta adierazleak**

	2024	2025	2026
<b>Helburua:</b> Kudeaketa aurreratuaren eredia euskal enpresetan zabaltzea, lehiakorrak izan daitezen			
<b>Ekintza:</b> Enpresa-lehiakortasuna sustatzea, kudeaketa aurreratu bultzatuz			
<b>Adierazleak</b> (azken urtetako ekintzen baitan) <ul style="list-style-type: none"> <li>• Industria-sektorean eta hari lotutako sektoreetan mobilizatutako enpresen kopurua</li> <li>• Kudeabiden egindako kontraste kopurua</li> </ul>	<b>560 235</b>	<b>560 235</b>	<b>560 235</b>
<b>Aurrekontu-konpromisoak eta finantzaketa publiko osoarekiko finantzaketa-ehunekoa.</b>			
	Zenbatekoa €-tan	Zenbatekoa €-tan	Zenbatekoa €-tan
<b>IV. aurrekontu-kapitulua</b>	<b>950.000</b>	<b>950.000</b>	<b>950.000</b>

**Helburu dituen sektoreak eta emateko prozedura**

Helburu dituen sektoreak:	EAEko industria-sareko enpresak: industria-sektorekoak eta jarduera operatiboei, laguntzakoak eta kudeaketakoak lotutako zerbitzuak, funtsean industria-sektoreari itzultzen direnak.
Emateko prozedura eta instrumentalizatzeko modua:	Dirulaguntza izenduna
Dirulaguntzan emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna indartzen duten jarduketak egotea. Deskribapena:	Urteko jarduera-programan honako jarduerak sartu behar dira: enpresetan berdintasuna kudeatzeko prestakuntza-eskaintza, eta kudeaketa aurreratu zabaltzeko jardunaldietan berdintasunarekin lotutako ekitaldiak.

**5.1.1.11.- 1. Ardatz estrategikoa: Oparotasuna. Enplegua eta susperraldi ekonomikoa**

<b>Helburu estrategikoa: I+Gren eremuan Europako batezbestekoarekin parekatzea</b>			
<b>Organoa: Teknologia eta Berrikuntza Zuzendaritza / Teknologiako, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Sailburuordetza</b>			
<b>Programa: 5413 Tecnologia</b>			
<b>Dirulaguntza-lerroa: Zuzeneko dirulaguntza BASQUEVOLT - INGEBAT proiektuari</b>			
<b>Helburuak, ekintzak eta adierazleak</b>			
<b>Helburua:</b> BASQUEVOLT ekimenaren asmoa da EAE Europako lider bihurtzea ibilgailu elektrikoetarako, metagailu geldikorretarako eta kontsumo-elektronikarako egoera solido eta erdi-solidoko bateria-teknologia berrietan. BASQUEVOLT abian jarriko du proiektu bat bateria-gelaxka solidoak eta erdi-solidoak fabrikatzeko teknologia berrien ikerketan eta garapenean; alegia, INGEBAT proiektua.	<b>2024</b>	<b>2025</b>	<b>2026</b>
<b>Ekintza:</b> INGEBAT proiektua finantzatzea			
<b>Adierazleak</b>			
Lagundutako erakundeen kopurua	1		
Garatu beharreko I+G proiektu kopurua	1		
